



ZUZENKETAK (I)

Bigarren ariketa

2008ko urriaren 6

Estilo kontuak (I): hizkuntza naturalagoa erabili

- (...) *astelehenero egiten dugun bezala, gaurkoan ere musikarekin erlazionaturiko agenda aurkeztuko dizuegu...*
- (...) *eguneroko errepassoa eman ondoren, gaurko agendaz mintzatuko gara...*
- (...) *Gure programarekin jarraituko dugu Euskal Herriko agenda birpasatuz*

Estilo kontuak: estilo zuzena erabili...

- (...) *Izan ere gaur azkeneko eguna izango da “Seis clases de baile en seis semanas” ikuskizuna emango dena...*
- (...) *Izan ere, “Seis clases de baile en seis semanas” ikuskizunaren azken emanaldia dugu...*

Esaldiaren antolaketa

- (...) eta arratsaldeko zortzi t'erdietan Oñatiko Kale Zaharrearantz izango da.
- (...) eta arratsaldeko zortzi t'erdietan izango da Oñatiko Kale Zaharrearantz.
- (...) eta Oñatiko Kale Zaharrearantz izango da Oñatiko Kale Zaharrearantz

Esaldiaren antolaketa: subjektua eta aditza hurbildu

- Musika nahiago dutenek, arratsaldea lasai pasa eta gaueko bederatzietan Rockstar aretoan Yesterday, Today, Strom Zone eta The Name-ren kontzertuak izango dituzte...
- *Musika nahiago dutenej, arratsaldea lasai pasa eta gero, kontzertu asko dituzte Rockstar aretoan bederatzietatik aurrera...*

Esaldiaren antolaketa: subjektua eta aditza hurbildu

- Zazpietan, Ainhoa Artetak, Mendebaldeko Sahararen aldeko kontzertu bat eskainiko du...
- *Zazpietan, Ainhoa Artetak kontzertu bat eskainiko du Mendebaldeko Sahararen alde...*
- *Zazpietan, Ainhoa Artetak eskainiko du Mendebaldeko Sahararen aldeko kontzertu bat...*

Esaldiaren antolaketa

- (...) eta saioari hasiera musika pixka batekin emango diogu.
- (...) *eta saioari hasiera emango diogu musika pixka batekin.*
- (...) *Saioa hasteko, entzun dezagun musika pixka bat...*

Kalko okerrak: beranduago

- *Berandu*
- *Beranduago: berandu baino geroago...*

Esaldiaren antolaketa: deikien aurrean, beti koma

- *Arratsaldeon, Nagore.*
- *Gu hemen primeran gaude, Iker*

- *Betiko proposamenak, ezta?*
- Barakaldo indartsu dabil; ezta, Iker?

Esaldiaren antolaketa: ere partikularen erabilera okerra

- *Bihar, Donostian bi hitzaldi egongo dira ere. Batetik...*
- Bihar, bestalde, Donostian bi hitzaldi egongo dira. Batetiki...

ERE nola erabili: [EHULKUn](#)

KLITXEAK, ESALDI KOMODINAK

- ... hemen hasten da agenda-saioa.
- Agendarekin amaitzeko...
- Horixe da guztia gaurkoz...// Hau da dena gaurkoz...